

## KOSTUEN EGITURA

Gure produktuak kostu finkoak eta kostu aldakorrak izango ditu. Kostu finkoen aldetik, gure poligono (tailerra) industrialeko denda fisikoan; elektrizitatea, gasa, ura, wifi-a, poligono industrialaren alokairua, langileen soldatak...

Bestalde, kostu aldakorrak ere baditugu. Adibidez, poligono industrialeko denda fisikoan eskura egongo diren xaboiak, gure produktua sortzeko materiala (pintzak, kaskoa, filtroak, tuboak, kalbeak, botoiak, kableak konektatzeko tresnak...) eta horiek duten salmenta-bolumenaren arabera izango da.

Kostu hauetako batzuk kostu finkoak eta aldakorrak izango dira. Hau da, elektrizitatea, ura, gasa, wifi-a eta langileen soldatak talde honetako kostuak izango lirateke. Azken batean, baliabide hauek asko erabiliz gero, gehiago ordaindu behar dira, hortaz, aldakorrak dira. Baina, bestalde, ez badira erabiltzen, gutxiengo kuota bat ordaindu behar denez, finkoak ere izan daitezke.

KOSTU FINKOAK	KOSTU ALDAKORRAK
<ul style="list-style-type: none"><li>- Alokairua</li><li>- Elektrizitatea</li><li>- Wifi-a</li><li>- Gasa</li><li>- Ura</li><li>- Soldatak</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Xaboa</li><li>- Materialak (pintzak, kaskoa, filtroak, tuboak, kalbeak, botoiak, kableak konektatzeko tresnak...)</li></ul>

	GALERAK	IRABAZIAK	
Alokairua	100€	350€ x 50 * 17.500€ %83,33	Produktuaren salmenta
Ura, gasa, elektrizitatea eta wifi-a	200€	3.500€ %16,667	Goiekik emandako diru-laguntzak
BEZ-a	20€		
Autonomoen ordainketa	294€ x 5 ** 1.470€		
Piezak erostea	150€ x 50 * 7.500€		
Langileen soldata	1200€ x 5 ** 6.000€		

\* Hilabetero 50 kasko salduko ditugu.

\*\* Bost langile gara geure enpresan.

Gastu guztiak	15.290€	21.000€	Irabazi guztiak
---------------	---------	---------	-----------------

Gordetzeko irabaziak	5.710€
----------------------	--------

Merkatuaren egoeraren arabera, piezen prezioa aldatu daiteke, beraz produktuaren salmenta prezio hori aldakorra izango da.

Gordetzeko irabaziak, kontu batean sartzen joango gara, ezusteko galerak izanez gero ordaindu ahal izateko.

Denda fisikoa irekitzean, hasierako galera puntuala izango dugu, materiala erosteko (xaboia, ordenagailua, kaxa erregistragailua...). Gastu hauen dirua, hilabeteetan lortuko dugun irabaziekin berreskuratuko dugu.